

Gure proiektuak, hau da, urpeko dronak, uretan dauden plastikoak eta mikro plastikoak batzen ditu. Konpontzen dugun arazoa, uraren kutsadurarekin erlazionatutakoa da, uretako bizitza hobetzeko eta pertsonen osasuna bermatzeko helburuarekin.

Dronak agenda 2030eko arlo batzuk (3,6,13 eta 14.ak) betetzeko aukera ematen du. Gaur egun mikro plastikoen arazoa larrienetariko bat da. Izan ere, ingurumen eta izaki bizidun gehienei eragiten die baina bereziki guri, mikro plastiko horiek gure gorputzen barnean bukatzen direlako. Hori ekiditeko dron bat sortuko dugu eta horregatik uste dugu bezeroak edukiko ditugula.

Diseinatuko dugun drona, lehen aipatu dugun bezala uretan dauden plastikoak eta batez ere mikro plastikoak batuko ditu.

Urpeko dron txiki bat bezala funtzionatzen du. Adimen Artifiziala erabiliz mikro plastikoak detektatzeko eta batzeko sentso baten bidez. Sistemaren barruan biltegi txiki bat du filtro batekin eta hor jasoko ditu plastiko guztiak. Biltzen dituen mikro plastikoak eta hondakinak birziklapen zentroetara eramango ditugu beste erabilera bat emateko.

Mugikorreko aplikazio baten bidez hau kontrolatzeko langile espezializatuak edukiko ditugu. Beste alde batetik, formazioak eta prestakuntzak eskainiko ditugu edonor erabiltzeko gai izateko.

Gure proiektuak hainbat eragin positibo izango ditugu batez ere gizartean eta pertsonen osasunean. Uraren kutsadura murriztuko da eta uretako izakien bizitza ere hobetuko da. Horretaz gain ere, pertsonen osasunean ere onurak ekarriko ditu izan ere, kalitatezko arrainez elikatuko dira.